

6. TESTUA. Bertsoak

Bertsotan

Horra hor Jone Uriak eta Kristiñe Txoperenak kantatutako bertsoak.

Gaia: Kanean txakur bat aurkitu dute.

Jonek etxera eraman nahi du;

Kristiñek, berriz, txakurtegira.

Doinua: Kaxianoren *Kantatzera nihoa*



JONE:

- 1 Txakur baten zain pasa
horrenbeste urte
eta honek baditu
hainbeste bertute;
hartu eta etxera
eraman nahi nuke,
txakurtegian txarto
tratatu dute. (Bir)

JONE:

- 3 Txakur bat izan dut nik
aspaldi helburu,
hartu eta etxera
eramango dugu;
aurkitzeko jendeak
hainbeste apuru,
abandonatu dute
gainera seguru. (Bir)

KRISTIÑE:

- 2 Txakurtegian daude
txakurrak primeran
ta zuk gure etxera
nahi duzu eraman;
guk txakurrak ditugu
etxean soberan,
norbaitek galdu badu
aurkitzeko eran. (Bir)

KRISTIÑE:

- 4 Abandonatuekin
ez zaite¹ hasi bela².
txakurtegian dute
leku bat epela;
galdetu nahi nizuke
ai, Jone, horrela:
txakurtegiak zertako³
dauzkagu, bestela? (Bir)

¹zaite: zaitez

²bela: berehala

³zertako: zertarako

Euskal Herriko eskolarteko bertsolari-txapelketa, 2004.

Aukeratu erantzun zuzena.

- 1 Nor da txakurra etxera eramatearen aldekoa?**
 - A. Jone.
 - B. Kristiñe.
 - C. Biak, Jone eta Kristiñe.
 - D. Bietako inor ere ez.

- 2 Zergatik ez du Jonek txakurra txakurtegira eraman nahi?**
 - A. Txakurra polit-polita delako.
 - B. Txakur zaharra izanik, ez duelako inork nahi izango.
 - C. Txakurra txarto tratatuko dutela uste duelako.
 - D. Kristiñek aspalditik nahi izan duelako etxean txakur bat izan.

- 3 Joneren ustez, zer gertatu zaio aurkitutako txakurrari?**
 - A. Txakurra galdu egin da.
 - B. Txakurra kalean jaio da.
 - C. Txakurrak txakurtegitik ihes egin du.
 - D. Txakurra abandonatu egin dute.

- 4 Zer deritze Kristiñek txakurtegiei?**
 - A. Ondo deritze; leku epela ematen diete-eta abandonatutako txakurrei.
 - B. Txarto deritze, izan ere, han ez dituzte txakurrak ondo tratatzen.
 - C. Ez ondo eta ez txarto, zertarako diren ez daki-eta.
 - D. Txakurtegiak sobera daudela uste du.

- 5 Zenbat bertso kantatu dituzte Jonek eta Kristiñek?**
 - A. Bina bertso kantatu dituzte.
 - B. Launa bertso kantatu dituzte.
 - C. Jonek bi eta Kristiñek bat.
 - D. Bertso bana kantatu dute.

6 Non dago errima bertsoetan?

- A. Bertsoetan ez dago inolako errimarik.
- B. Bertso-lerro bakoitietako azken hitzetan dago errima.
- C. Bertso-lerro bikoitietako azken hitzetan dago errima.
- D. Bertso-lerro bikoitietako lehen hitzetan dago errima.

7 Hitz hauetatik zeinek ez du besteekin errimatzen?

- A. primeran
- B. daude
- C. eraman
- D. soberan

8 Zenbat silaba ditu bertso-lerro honek? «galdetu nahi nizuke»

- A. Zortzi.
- B. Sei.
- C. Zazpi.
- D. Ez du kopuru zehatzik.

9 Aukeratu esaldi zuzena.

- A. Bertsoak idatziz jasotzeko dira bakarrik.
- B. Bertsoak errezitatzeko dira.
- C. Bertsoak tradiziozko doinuak zein doinu berriak erabiliz kantatzeko dira.
- D. Bertsoak abesti modernoek doinuak soilik erabiliz kantatzeko dira.

10 Bertso-ariketa honetan, nola ari dira Jone eta Kristiñe?

- A. Biak batera kantatzen ari dira bertsoak.
- B. Batak kantatutakoari besteak erantzuten dio kantuz.
- C. Batak ez dio besteak kantatutakoari erantzuten kantuz.
- D. Batak kantatu ogiten du eta besteak ontzun baino ez du ogiten.